

1. Kontu egin pilota-eskola bat sortu eta antolatu nahi duzula. Zer erakunderen bidez egin dezakezu?
 - a) Udala.
 - b) Ikastetxea.
 - c) Kluba eta Federazioa.
 - d) **Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.**

2. Foru-aldundiek badituzte eskola-kiroleko programa batzuk, baina programa horietatik kanpo geratzen diren aldi edo garaietan ere egiten dira pilotan hasteko jarduera batzuk. Zer izen dute?
 - a) Eskola ibiltariak.
 - b) Prestakuntza-eskolak.
 - c) **Aldi baterako eskolak (Gabonak, Aste Santua, uda).**
 - d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

3. Euskal pilotan hasteko garaian, zer modalitate erabil daiteke neska-mutikoen praktika bideratzeko?
 - a) Pala, zesta-punta eta multipilota.
 - b) Eskua, zesta-punta eta pala.
 - c) Zesta-punta, multipilota eta eskua.
 - d) **Eskua, pala, zesta-punta eta multipilota.**

4. Gazteak leku bat baino gehiagotatik erakartzen ditugu pilota-eskolara, baina erakartze-kanpaina ikastetxeko gorputz-hezkuntzako orduetan egiten badugu, zer esparrutan ari gara?
 - a) Eskola / Kluba
 - b) Udal-programa
 - c) **Ikastetxea.**
 - d) Nork bere kasako praktika

5. Demagun eskola batek "Gabonetako Pilota Campusa" antolatu duela pilotari berriak erakartzeko; zer jarduera mota da?
 - a. Udal Eskola.
 - b. Aldi baterako eskola.**
 - c. Ate irekien eguna.
 - d. Ikastetxearen jarduera.

1. PRAKTIKA:

Ba al dakizu nolakoak diren zure herriko pilota-eskolak? Ikus dezagun.

KLUBETAKO ESKOLAK		
	ERANTZUNA	EZ DAKIT
Zenbat klub daude zure udalerrian?		
Klubek ba al daukate pilota-eskolarik?		
Zer modalitate irakasten dira pilota-eskoletan?		
Pilota-eskola mistoak al dira?		
Zenbat neska-mutiko joaten da eskolara?		
Zer hizkuntzatan egiten dira entrenamenduak?		
Parte hartzen al dute eskolarteko lehiaketetan?		
Klubean ba al dago pilotari federaturik?		

IKASTETXEETAKO ESKOLAK		
	ERANTZUNA	EZ DAKIT
Zenbat ikastetxe dago zure udalerrian?		
Zenbat ikastetxek dute pilota-eskola?		
Zer modalitate irakasten dira pilota-eskoletan?		
Pilota-eskola mistoak al dira?		
Zer hizkuntzatan egiten dira entrenamenduak?		
Parte hartzen al dute eskolarteko lehiaketetan?		
Gorputz-hezkuntzako orduetan egiten al dute euskal pilotako jarduerarik?		

2. PRAKTIKA:

Zure udalerrian, zer jarduera egin daiteke aldi baterako eskoletan (Gabonak, Aste Santua eta uda)?

1. Aldi baterako eskoletan egin al daiteke jarduerarik pilota sustatzeko eta gazteak erakartzeko?
 - a) Bai.
 - b) Ez.
 - c) Ez daukat informazio nahikorik.

2. Pilota-eskoletan, garai batzuetan, klub eta ikastetxeen jarduerak etenda geratzen dira. Garai horietan egiten al da ezer?
 - a) Bai.
 - b) Ez.
 - c) Ez daukat informazio nahikorik.

3. Aldi baterako eskoletako jarduerak zer erakundek eskain ditzake?
 - a) Pilotako klubak.
 - b) Ikastetxeak.
 - c) Udala.
 - d) Ez daukat informazio nahikorik.

4. Zure herrian aldi baterako eskola antolatzekotan, zure ustez, zer neska-mutikorentzat izango litzateke?
 - a) Orain ere pilota-eskoletan dabilzanentzat.
 - b) Pilota-eskoletan ez dabilzanentzat.
 - c) a) eta b) dira zuzenak.
 - d) Ez daukat informazio nahikorik.

5. Oporretan euskal pilota eskaintzekotan, zertarako?
 - a) Pilota-eskoletan dabilzanak aktibo egoteko.
 - b) Pilotari berriak erakartzeko.
 - c) a) eta b)
 - d) Oporretako jarduera-eskaintza aberasteko.
 - e) Ez daukat informazio nahikorik.

3. PRAKTIKA:

Zure udalerrian, zer aukera daude bakoitzak bere kasa egiteko pilotan? Ikus dezagun:

NORK BERE KASA

	ERANTZUNA	EZ DAKIT
Zure udalerrian zenbat frontoi dago?		
Zenbat itxiak?		
Zenbat irekiak?		
Frontoi itxiak erabiltzeagatik ordaindu egin behar al da?		
Zure udalerrian ba al dago aukerarik euskal pilotako materiala erosteko?		
Zure udalerrian, neska-mutikoak, denbora librean, ibiltzen al dira pilotan?		
Eta helduen artean? Atsegin hutsez inor ibiltzen al da pilotan?		